

Janari Laguntzako 2016ko Programaren azken fasea

Arabako Gurutze Gorriak 42.142 kilo elikagai banatu ditu 3. Fase honetan

- **Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonentzako 2016ko Janari Laguntzaren Programak 3 fase ditu, eta hiru fase horietan, 120.931 kilo janari inguru banatuko dira guztira Araban.**
- **Laguntza horrekin, neurri handi batean arinduko dira Arabako 1.700 pertsonaren beharrak.**

Arabako Gurutze Gorriak 42.142 kilo janari banatuko ditu egoera ahulean dauden pertsonen artean apirilaren 30a bitartean. Horrela bukatuko da gizarte-egoera ahulean dauden pertsonentzako 2016ko Janari Laguntzaren Programaren azken fasea, osotara **120.931 kilo** janari banatu ondoren.

Programa honen %85 Gizarte-egoerarik Ahulenean dauden Pertsonen Laguntzeko Funts Europarrarekin (FEAD) finantzatu da, eta gainerako %15a aurrekontu nazionalarekin. Finantzaketan lagundu dute Osasun Ministerioak, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak.

Elikagaiak **Gurutze Gorriak** eta **Elikagai Bankuen Federazio Espainiarrak** (FESBAL) banatzen dituzte erdizka. Bi erakundeek zentroetatik Arabako banaketara atxikitako 34tik gora erakunderen artean banatuko dira, eta horiek arduratuko dira janaria gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen emateaz, pertsona batentzat edo familia oso batentzat (haur txikidunentzat ere bai) otordu oso bat errazago presta dezaten.

Elikagaiak oinarrizkoak dira, erraz galtzen ez direnak, eta erraz garraiatzen eta biltegitratzen dira. "Janari-saskiak" honakoak ditu: arroza, haurrentzako potoak, haurrentzako zerealak, haurrentzako esne-hautsa, txitxirioak, babarrunak, UHT esnea, oliba-olioa, hegaluze-kontserbak, pasta, tomate frijitua, galletak, barazki-krema deshidratatua, azukre erantsirik gabeko fruta-kontserbak eta baina-kontserbak. Janari horiek bereziki elikagarriak dira, eta pertsona helduen eta, bereziki, adingabeen beharrei erantzuten lagunduko dute. Saski hau Elikagai-bankuen Federazioaren, Gurutze Gorriaren eta Ministerioetako elikadura-adituen laguntzarekin prestatu da.

Arabako Gurutze Gorriak kudeatzen duen janari-laguntza honekin, **Arabako gizarte-egoera ahulean dauden 1.700 pertsonaren** beharrak neurri handi batean aseko dira.

Haurrentzako elikagaiak biltzeko ekimen ugari

Elikadura Laguntzako Programa honetatik haratago, Gurutze Gorriak elikagaiak biltzeko ekimen asko gauzatzen ditu eta ekimen horietan enpresek (batzuetan enpresa horietako langileen artean), erakundeek eta oro har herritarrek hartzen dute parte. Ekimen horietako asko kolektibo kalteberena, hots, haurrak kontuan hartuz bideratuta daude.

Ildo horretan, **Gosariak eta Meriendak #Bihotzez** ekimena aipatu behar da, hots, behar duten hurrei gosariak eta meriendak eskaintzea helburu duen ekimena. Kanpaina hau Auchan Taldeko enpresen (Alcampo, Simply, Oney eta Immochan) laguntzari esker egin da.

Era berean, Solidaridad Carrefour Fundazioarekin batera egindako '**Juntos podemos darle la vuelta**' izeneko kanpainaren bitartez, Gurutze Gorriak haurrentzako elikagaiak lortu zituen Erakunde Humanitarioak artatzen zituen eta kalteberatasun-egoeran zeuden Haurren alde.

Nazioarteko Elikadura Banatzaileak (DIA) ere Gurutze Gorriaren esku utzi du haur eta gazte kalteberenei elikagaiak helarazteko lana. Ekimen horren oinarria Gurutze Gorriaren Eskola Arrakasta Programa izeneko programako haurren meriendetarako produktuak ematea da.

Espainia

Espainiako Gurutze Gorriak **17.830.000** kilo elikagai banatuko ditu hirugarren fase honetan. **99.000.000 kilo** janari banatuko ditu osotara, Estatu osoko 6.000tik gora banaketa-erakunde atxikiren bitartez. Maila nazionalean, aurreko planean baino 64 milioi kilo gehiago dira, eta horrela neurri handi batean arinduko dira gizarte-egoera ahulean dauden 1,5 milioi pertsona ingururen beharrak.

IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK

Gurutze Gorria Telebistako bideoa, Janari Laguntzako Programari buruzkoa:

www.cruzroja.tv?video=9120

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43
comunicacionalava@cuzroja.es

www.cruzroja.es | www.cruzroja.tv
fb.com/cruzrojaalava | twitter.com/cruzrojaalava | instagram.com/cruzrojaalava